

DONOSTIAKO GOBERNU BATZARRARI:

Udalbatzak, 2008ko apirilaren 4ko bilkuran, Donostiako Gobernuaren eta Administrazioaren Organo Araudia onartu zuen.

Araudi horretako I. Tituluko 4. artikulua arautzen du Udalaren antolamendu egitura administratiboa. Egitura honek funtzionalki zuzendaritzatan antolatuta dago eta araudi horretako 7. artikuluan xedatuta dago Alkateari dagokiola udal antolakuntza eta egitura exekutiboa.

Era berean, araudi horretako 3. idatz zatian araututa daude zuzendaritza organoak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko Legean eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginean ezarritakoari jarraituz.

Orobat, araudiko 38. artikuluan xedatuta dago Udaleko zuzendaritza organoak direla alkateak administrazio betearazlearen antolakuntza eta egitura ezartzean zehaztu dituen eta administrazio antolakuntzako buru diren zuzendariak eta arloko koordinatzaileak.

Beste aldetik, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legeak zuzendaritza publiko profesionala arautzen du 31. artikuluan eta hurrengoetan, eta haren betekizunak, izendatzeko prozedura eta araubide juridikoa ezartzen ditu.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak zuzendari publiko profesionalen erregulazioa ezartzen du 36. artikuluan eta hurrengoetan.

Donostiako Udaleko zuzendaritza-organoen lanpostuen zerrendan Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamenduko zuzendariaren lanpostua dago. Zuzendariak 2025eko uztailaren 8tik aurrerako ondorioekin lanpostua utzi ondoren, aurkeztutako ukoaren ondorioz, lanpostu hori bete gabe dago.

A LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL:

Con fecha 4 de abril de 2008 el Excmo. Ayuntamiento Pleno aprobó el Reglamento Orgánico del Gobierno y la Administración de San Sebastián.

Dicho Reglamento establece en su Título I, Art. 4, que, con carácter general, la organización administrativa del Ayuntamiento se organiza funcionalmente en Direcciones, disponiendo en su Art. 7 que corresponde al Alcalde establecer la organización y estructura de la Administración municipal ejecutiva.

Igualmente, dicho Reglamento establece en su Título IV, sección 3ª la regulación de los órganos directivos, de conformidad con lo previsto en la Ley de Bases de Régimen Local y el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

Asimismo, el artículo 38 del Reglamento dispone que son órganos directivos municipales los/as Coordinadores/as de Área y los/as Directores/as que, culminando la organización administrativa, determine el Alcalde en el establecimiento de la organización y estructura de la administración ejecutiva.

Por su parte, la Ley 11/2022 de Empleo Público Vasco regula en sus artículos 31 y siguientes la dirección pública profesional, estableciendo sus requisitos, procedimiento de designación y régimen jurídico.

La Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi establece en los artículos 36 y siguientes la regulación del personal directivo público profesional.

La relación de puestos de órganos directivos del Ayuntamiento de San Sebastián incluye el puesto de director/a de Prevención, Extinción de Incendios y Salvamentos. Tras haber cesado el Director en su puesto de trabajo con efectos de fecha 8 de julio de 2025, con motivo de la renuncia presentada, dicho puesto de trabajo se

encuentra en situación de vacante sin ocupar.

2023ko irailaren 19an, Tokiko Gobernu Batzarrak zuzendaritza-organoetako lanpostuen zerrenda aldatzea onartu zuen, baldintza berriak ezarri, bai eta lanpostu horiei dagozkien monografiak ere. Horien artean Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamenduko zuzendari lanpostua dago.

El 19 de septiembre de 2023 la Junta de Gobierno Local aprobó la modificación de la relación de puestos de órganos directivos estableciendo nuevos requisitos, así como las respectivas monografías de los citados puestos. Entre ellos se encuentra el puesto directivo director/a de Prevención, Extinción de Incendios y Salvamentos.

Bestalde, Segurtasun, Suhiltzaile eta Babes Zibileko zinegotzi delegatuak proposatu du Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamenduetako zuzendaritza-organo zuzendaria izendatzeko deialdia egitea.

Por otro lado, el Concejal delegado de Seguridad, Bomberos y Protección Civil, ha propuesto efectuar convocatoria para el nombramiento de órgano directivo director/a de Prevención, Extinción de Incendios y Salvamentos .

Hautaketa-prozesuaren deialdia arautuko duten oinarriak I. eranskinaren arabera egin dira.

Las bases que han de regir la convocatoria del proceso selectivo han sido elaboradas de conformidad con el documento anexo I.

Horiek guztiak horrela direla, honako erabaki hauek hartzea proposatzen diogu Gobernu Batzarrari:

A la vista de cuanto antecede, se propone a la Junta de Gobierno Local la adopción de los siguientes:

ERABAKIAK

ACUERDOS

1. Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamenduko Zuzendaria zuzendaritza organoaren titularra izendatzeko deialdia onartzea, dokumentu honi atxikitako I. eranskinaren arabera.

1. Aprobar la convocatoria de conformidad con el anexo I para la selección de personal que permita nombrar titular del órgano directivo director/a de Prevención, Extinción de Incendios y Salvamentos .

2. Aurreko ataletan xedatutakoaren edukia argitaratzea Donostiako Udalaren webgunean, "Enplegu Eskaintzaren" barruan, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

2. Publicar el contenido de lo dispuesto en los apartados anteriores en la página web del Ayuntamiento de San Sebastián, dentro de la "Oferta de Empleo" y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Donostian, sinaduraren egunean

HAUTAKETA ZERBITZUAREN BURUA

PERTSONEN KUDEAKETAKO ZUZENDARIA

PERTSONAK, EKONOMIA ETA AURREKONTUA KUDEATZEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA